

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2012ko apirilaren 12a. IX. urtea. 2.390. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Ia 1.000 bisitari artatu dituzte Tolosaldeko turismo bulegoetan

Aste Santuan eskualdera etorritako pertsona kopuruaren beherakada nabarmena izan da, nahiz eta, lo egitera etorri diren turisten kopurua mantendu den

Tolosako Topic zentroan 40 gazte ari dira parte hartzen txotxongilo tailerretan jai egun hauetan; Aquariumarekin batera diseinaturiko arrainen tailerra da berritasuna **o4-5**



Mendizabal musikaria *Soinujolea naiz* lana eskuartean duela. I. GARCIA LANDA

Joxe Mendizabal Soinujolea

«Garai bateko dantzaldiak egiten ditut, baina bakarrik»

Musikariak bakarkako lehen diskoa kaleratu du, 'Soinujolea naiz'; erronka bezala diskoko ia lan guztiak berak bakarrik egin ditu **o3**

Asteasuko Lanik enpresaren lana ikusgai, Munduko Futbol Txapelketan

2014. urtean Brasilgo Arena Pernambuco estadioan jokatuko dute, besteak beste, lehiaketa, eta lantegiak bertako estalkia egiteko hitzarmena sinatu berri du **o6-7**

Larunbatean amaituko dira AurrezAurre jardunaldiak

Zapalduen Antzerkiaren tailerra egiten ari dira Tolosako kultur etxean, eta ikastaroaren emaitza ekimenaren azken egunean erakutsiko dute, 18:00etatik aurrera **o2**

Sartu gure webguneetan

hitza info



tolosaldea.hitza.info
leitzaldea.hitza.info
villabona-aiztondo.hitza.info
alegialdea.hitza.info
tolosa.hitza.info
anoetaldea.hitza.info
ibarralde.hitza.info

info

Zapalduen Antzerkiarekin amaituko dira aurtengo AurrezAurre jardunaldiak

Tolosako Udaleko Berdintasun teknikariek erakusketa eta tailerren balorazio ona egin dute

Itzea Urkizu

Pasa den martxoaren 8ko Emakumearen Nazioarteko Eguna harira antolatutako AurrezAurre jardunaldiak, larunbat honetan amaituko dira, Zapalduen Antzerkiarekin. Hiru eguneko tailer hau atzo hasi zen, eta bihar amaituko da; 17:00etatik 20:00etara ariko dira kultur etxean. Azkenik, larunbatean emandakoa izango da, 18:00etan.

Tolosako Udaleko Leire Kortajarena Berdintasun teknikariak azaldu duenez, hain zuzen ere foro parte-hartzaile moduan antolatatu zuten, lehenengoz, Zapalduen Antzerkia. Mugarik Gabe elkarteak indarkeriaren aurkako asterako proposatu zieten ideia, eta «sekulako arrakasta izan zuen». AurrezAurre jardunaldietarako, beraz, berriro antolatzea erabaki zuten.

Genero zapaldua antzezgai

Oihan Martirena eta Blanca Ruiz izango dira, gaurtik larunbatera bitarte, Zapalduen Antzerkiaren tailerra gidatuko duten aktoreak. Donostiarra da Martirena, eta Ruiz, berriz, gasteiztarra da. Antzerki taldeekin nahiz tailerren bitartez, hainbat proiektutan elkarrekin lan egiten dute, eta hezkuntzara begira ere jartzen dira, antzerkiaren bidez.

«Herriak antzerkirako dohaina edo gaitasuna berreskuratzea da antzerki mota honen funtsa», Oihan Martirenak dioenez. Izan ere, sormen artistikorako baliabideak edozeinek dituela dio aktoreak: «Gure gorputza eta gogoa gureak dira. Norberak izan di-

tzakeen zailtasun edo gatazkei alternatibak era kolektiboan aurkitzeko tresna bat da Zapalduen Antzerkia».

Ikusle guztien arazoak elkarrekin konpondu ahal izateko ideiak eztabaidatuko dituzte, beraz, gaurtik ostiralera, kultur etxera bertaraten direnek. «Nizapaldua nago, aldamenekoa ere bai, eta beste hura ere bai, baina askotan ez gara konturatzen, benetan hor dagoen egiturazko zapalkuntza», nabarmendu du Martirenak; hori ere agerian uzte aldera, lan egiten dute.

Tolosan duela hilabete batzuk egindako Zapalduen Antzerkiak «arrakasta» izan zuen

Tailer honen dinamikari dago-kionez, hiru eguneko izango da. Prozesua taldearen araberakoa izaten dela azaldu du Oihan Martirenak, izan ere, nahi eta behar desberdinak izaten dira. «Guk eztabaidarako espazioa erraztuko dugu, bertaratuak animatzeko, eta eztabaida hau hainbat antzerki lengoaien bitartez sortuko dugu. Gure ideia, generoarekin erlacionatutako zailtasun egoerak, edo barneratutako hainbat zapalkuntza azaleratzea da», azaldu du aktoreak. Horretarako, hainbat eszena antolatuko dituzte, tailerreko parte hartzaileek proposatutako egoerekin.

Duela hilabete batzuk ere, Tolosan izan ziren Ruiz eta Martirena, eta esperientzia oso ona izan zela berretsi du aktore donostiarrak: «Orduan, antzezlan prestatuta ekarri genuen Tolosara, antzerki foroa egiteko. Errealitatekin nahiko gertu egon zitekeen, eta gaizki amaitzen zen istorio bat kontatu genuen, generoarekin gaia landuz. Jende askok parte hartu zuen, eta antzezle eta ikusle arteko

muga hori puskatuz, hausnarke-ta oso sakona egin genuen. Egin ditugun foroaren artean, luzeena izan da Tolosakoa, hiru orduz ari-tzu baikin».


Tailer arrakastatsuak

Martxoaren 5ean hasi zen AurrezAurre jardunaldietako egitaraua, *Pink Saris* filmarekin. tartean, emakume artisten lanekin osatutako erakusketa, eta hainbat tailer izan dira jardueraren nabarmenak, eta Leire Kortajarena berdintasun teknikariak «balorazio oso ona» egin du.

Batetik, Aranburu jauregiko erakusketa nabarmendu nahi izan du Kortajarenak: «Parte hartze prozesu baten emaitza izan da, eta Aranburu jauregia kalitatezko obrekin betetzea arrakasta da guretzat. Bisitarien datu zehatzak ez ditugu oraindik jaso, baina hori bigarren mailako helburua da. Erakusketa hori antolatzeke beharrezkoa izan den prozesua asko baloratzen dugu».

Bestetik, antolatutako tailerrek ere oso harrera ona izan dutela baieztatu du berdintasun teknikariak. Pasa den martxoaren 31n Bilgune Feministaren laguntza antolatutako autodefentsa ikastaroa nabarmendu du, bereziki, eta jende asko bertaratu zela azaldu du: «Tailer guztiek arrakasta izan dute, ikus-entzumezkoak izan ezik. Ezin izan genuen egin, jende gutxi bertaratu zelako. Egia esan, denbora gutxian ikastaro asko antolatuko ditugu, eta azalpen gutxi eman ditugu, eta hori izan zen, behar bada, arazo».

• tolosa@hitza.info



Pasa den martxoaren 9an inauguratu zuten erakusketa. I. URKIZU

Ikusleak antzezlaneko zati egiten dituen metodologia berezia

➔ 1960ko hamarkadan, Augusto Boal antzerkigile, aktore, zuzendari eta hezitzaile brasildarrak sistematizatu zuen antzerki metodoa da Zapalduen Antzerkia deritzona. Boalek elkareragiletasuna oinarri hartu zuen, antzerkian bereziki, eta hainbat adituk bitartekoan ikuspuntu berritzailea izan duela berresten du. Zapalduen Antzerkia zapalduetako klase eta norbanakoen antzerkia da finean. Ikusleek dramaren bertan parte hartzen dute, modu honetara egoera errealek antzeztu eta askapen prozesu batera helduz. Besteak beste, aktoreek proposatutako arazoei erantzun eta konponbideak bilatzen dizkiete ikusleek, eta nolabait, obraren beraren bidea erabakitzeke eskumena izaten dute. Honekin batera, gainera, antzerkia foro ere bilakatzen dute, obra taldean osatuz.



AurrezAurre erakusketan arte adierazpen guztietako lanak ikusgai izango dira larunbata bitarte. I. URKIZU



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



LGL

Imanol Garcia Landa Irura

Joxe Mendizabal (Ibarra, 1967) Iruran bizi da azken urteotan. Ibilbide luzea du Mendizabalek musikan, eta hainbat talderen kide bezala (Xaximiku, Egan, Suan Blai) diskoak atera arren, orain kaleratu duena bakarka egindako lehenengoa da, *Soinujolea* naiz izenekoa.

Nola sortu zen diskoa argitaratzeko ideia?

Kokatu egin behar da: beti egon naiz jotzen, taldeak utzi ondoren, bakarka aritu naiz, jateketan, ezkontzetan, afaritan... Zortzi-hamar urte egin ditut horretan, telebistan egindako lanarekin tartekatuz. Orain bakarkako formatu hori kalera atera dut, eta dantzaldiak egiten ditut garai batean Eganen egiten nuen bezala, baina bakarririk joaten naiz, ekipo guztiarekin. Alde batetik, krisiak berak bultzatuta, eta bestetik, badaude hainbat toki hainbesteko aurrekonturik ez dutenak, edo malgutasuna behar dutenak. Eskaintza zabala dut: haurrentzako dantzaldiak, jubilatuentzako bazkariak, gaueko dantzaldiak... Azkenean errepertorio zabala erabiltzea da. Diskoa, hain justu, hori erakusteko da, nire lana nola egiten dudana erakusteko.

Diskoan ere, zuzeneko emanaldietan bezala, zuk zeuk egin duzu guztia.

Bai, erronka puntu bat ere baze goen hor. Emanaldietan bakarririk aritzen naiz, ni muntatzen dut, nik jotzen dut, nik abesten dut... Eta diskoa ere bide horretatik joan da. Erraza zen lagunei deitu eta parte hartzeko eskatzea, baina baze goen, esan bezala, erronka puntu hori: nola egin dezaket dena nik bakarririk egiteko. Abestiatik nik sortu ditut, tartean ber-

Joxe Mendizabal o Soinujolea

Betiko erromeri doinuei egungo ukitua eman nahi izan die Joxe Mendizabalek bakarka egindako bere lehen diskoan, eta «oso gustura» dago lortu duen emaitzarekin.

«Erronka puntu bat izan du diskoa nik bakarririk egiteak»

tsio batzuk, nik grabatu dut, nik nahastu dut, nik masterizatu dut, eta nik eraman dut kopiak egitera. Azala eta diseinua egiteko eskatu diot Susana Segurolari laguntza.

Eta prozesua nolako izan da?

Ez da lehenengo aldia etxean disko bat grabatu dudana. Baina beste diskoak grabatu ditudanean ezberdina izan da. Oraingo honetan kantuak sortu eta grabatu nire estudioan egin ditut. Ez da izan aurretik sorkuntza egin, moldaketak egin eta gero nahastu. Kanta sortzen ari nintzenean dena batera joan da, eta abestia bukatuta gelditzen zen.

Emaitzarekin gustura?

Bai, oso gustura nago. Orain dela urtebete esango bazenidate, hau izango zela emaitza, horixe nahi nuela esango nuen. Uste dut erraz entzuten den diskoa dela. Lagun batek deitu dit diskoak entzun eta gero; egurra eman ohi dit, eta berak esan didanez, garai batean entzuten zituen erromeria doinuak

dira, baina soina gaur eguneko da. Eta hori asko gustatu zait, horixe nahi nuelako: betiko erromeri hori hor ateratzea.

Zein estilo sartu dituzu diskoan?

Trikitia, fandangoa, bi arin arin, kalejira pare bat, *cumbia* pare bat, kalejira azkar pare bat eta Itzoitzen *Lo egin* abestiaren bertsioa. Zortzi nik egindakoak dira, eta Itzoitzekoak gain, bi arin arinak ere bertsioak dira. Horietako bat, nire irakasle maitea izan zen Isidro Larrañagak 1980an grabatutakoa da, eta, bestea, herrikoa. Akordeoiaren aldetik modu tradizionalen jo ditut, janzkera aldatu dit.

Lehen abestiaren izenburu berdina jarri diozu diskoari.

Azken urtetan hainbat salta eta lanetan aritu naiz, eta gauza ezberdinak jo ditut. Egun, gehiena erabiltzen dudana ordenagailua da, horrekin egiten dut lan gehiena. Hausnarketa bat egitean, pentsatzen dut musikaria naizela, baina berez, soinujolea naiz. Eto-

rri diren beste kontu denak, lan horri lotuta etorri dira. Abestia ez nuen egin diskoaren izenbururako, eta pentsatzen hasi nintzenean garbi ikusi nuen hori izan behar zuela.

Dagoeneko salgai dago diskoa?

Bai, Tolosan Zumbeltz dendan salgai dago, eta gero Elkar etxeak egingo du banaketa, beraz, oso gustura nago horregatik. Datoren astetik aurrera hainbat dendetan izango da.

Zer aukera du erromeria musikak egungo merkatuan?

Orain hamar bat urte gainbehera handia zetorren erromeria taldeetan eta dantza taldeetan. Nik uste dut berriro egin behar zela formatua. Egun gauza fresko batzuk ikusten dira. Gauza batek atentzioa deitu dit: gazte asko dantza egiten ikusi dit plazan, Irurako festetan, adibidez. Garai batean aritzen ziren taldeak eta egun ere jarraitzen duten batzuek esan didate, bueltan datoirela.

Azken urtean ere arituzara emanaldi dezente egiten.

Aukera badago, baina zure buruan baldin badago bi mila lagun aurrean aritzea, eta denbora guztian hori nahi izatea, ba hori ez dago. Ideia horretatik aldendu egin naiz ni. Azkenean giroa da kontua. Hogei lagun aurrean ari banaiz, eta horiek gustura badaude... Garai batean, horrelako iritziekin ez nuen bat egiten. Baina egun, egia esan, ez dut begiratzeko jende kopurua. Iruditzen zait badaudela beste leku batzuk non oso ondo sentitu zaitezkeen zure lana egiten, jendeak eskertu egiten dizuna, eta primeran pasatzen duzuna.

'Erromeria.com' proiektuaren barruan egin duzu diskoa eta helbide horretan bertan, nahi duenak deskargatu ditzake abestiak. Zergatik egin duzu aukera hori?

Euskal Herrian disko asko oso gutxi saldu dituzte. Azken finean, promozioak izan dira zuzenekoak egiteko. Eta ez da bakarririk hori Euskal Herri mailan gertatzen. Diskoak zertarako egiten dira? Zure lana erakutsi eta hortik zuzenekoak egin ahal izateko. Diskoak saltzetik ez duzu bizia ateratzen, gurea zuzenekoak da. Beraz, jendeak abestiak deskargatzen baditu eta gero ez dakit noraino zabaltzen baditu, primeran iruditzen zait.

Telebistan hainbat saiotan arituzara, eta laster estreinatuko den 'Kantuan' programan parte hartzen arizara orain. Zertaz ariko da programa?

Gala tematikoak egingo dira, astean behin. Ez da lehiaketarik izango. Kantu ezagunak hartuko dira, euskaraz, ingelesez, italiaraz, gazteleraz, eta abeslari batzuek interpretatuko dituzte. Abeslarien hautaketa indartsu bat egin da, eta hamalau abeslari hartu dira. Saio bakoitzean ez dute abeslari guztiak parte hartuko. Ikusentzulego familiarrari zuzendutako programa izango da, Julian lantzik aurkeztua.

Zer lan egiten duzu bertan?

Abeslarien hautaketan parte hartu dut, eta, batez ere, musikaren ekoizpenean aritzen naiz. Horrelako saioetan, abestien oinarria grabatzen da, gero abeslariak horren gainean abesteko. Musika horren grabaketaz arduratzen naiz, eta saioaren zuzendariari ere laguntzen diot abestien auke-raketa egiten.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Pertsonak zaintzeko.** Espereintziadun emakume euskaldunak, arratsaldez edota gauez, edadeko edota elbarri dauden pertsonak zaintzeko, bere burua eskaintzen du. Interesatuek, deitu 659 352682 telefono zenbakira.

Iaztik bistariaren kopuruak behera egin duen arren, Tolosaldea Turismo bulegoak balorazioa positiboa egin du. Eguraldiak eragin nabarmena izan duela eskualdeko turismoan adierazi dute.

Euriak ukitutako oporraldia

Iñigo Terradillos-Eneritz Maiz

B atruk oraindik oportunitate baden ere, Aste Santuko oporren balantzea egina du Tolosaldeko Turismo bulegoak. Aste Santuko bost egunetako datuak bildu dituzte, eta orokorrean, nahiz eta iaztik bistariaren kopuruak jaitsiera izan duen, balorazio positiboa egin dute.

Tolosaldean, bost egunetan, gutxiira 600 bistari aritu dira. 570 bistari Tolosaldeko Turismo bulegotik pasatu dira, eta Abaltziskan dagoen informazio bulegoara 380 bistari iritsi dira. «81 kasutan, aurkebu urtearekin alderatuta beharokada nabarmena izan da. Tolosaren kasuan, aurretik ez da Triangelu plazan informazio punturik jarri, eta Abaltzisketan berriz, eguraldi txarrak eragin zuzena izan du bistariaren kopuruari, adierazten du Olatz Ilaregiko Turismo salko arduradunak.

Iaz, hiru puntu jarri zituzten bistariari informazio helarazteko. Tolosaldeko bulegotik eta Triangelu plazan jarritako etxetxotik ia 1.200 bistari pasa ziren, eta Abaltzisketakoaren kasuan, 800 izan ziren.

Aurretik, Tolosan dagoen eskualdeko turismo bulegoaren bistariaren gehiengoa Espainiako Estatutako jatorria izan du. Bertatik pasa diren turisten %37, hain zuzen ere. Ondoren, gipuzkoarrek izan dira eskualde gehien bisitatu dutenak, hau da, %25. Bizkaitarrak %17 izan dira, eta arabarrak %10. Nafarroatik iritsitako bistariaren kopurua %6 izan da. Aizterritarrak, berriz, %4 izan dira. Azkenik, eskualdeko bistariak dundu, eta %1 beldio ez dira izan.

2011. urtean izan ziren bistariaren jatorriarekin alderatuz gero, proportzioak zertxobait aldatu egin dira, eskualde eta gipuzkoarren pisua nabarmen jaitsi da, adierazi dute. «Zorionez, bistari kopurua orokorrean jaitsi bada ere, lo egiten dutenen kopurua, turistikak alegia, mantendu egin dira, eta horregatik, okupazio datuak 2011koen antzekoak direla esan dezakegu», dio Ilaregik.

Turismo bulegoan, aurkebu urteatik bistariaren jatorriari lagokionean aldaketak nabarritu dute. Kasu honetan, gure eskualdea espezializazio gerturatu direnen arloan, naturan igotza azimarratu behar da. «Iruroen ospatzen den Navarrut azokan nabaritu guren gure eskualdekoekin zentuen interesen, gaineratu du. Gure maiztasunak at, gure bisita-



Santandereak etorritako Ori-Gomez eta Temprano-Sierra familiak, Tolosaldeko Topic zentroan. | TERRADILLOS

rien arloan Herrialde Katalanetik etortzakoak dira gehiengo. Hauen arteak, madrildarrak kokatzen dira. Kasu berdinetsua da Gaztelak eta Leongoak. «Ez da nabermentzeko jatorria baino baidarudi Valladoldeko Intur azokan bistariak interesa agertu zutelako. Topic zentroan, berriz, 2011. urtean izan zuten eskaintza antzeko arlekin, araratuko bistarienez gauriz gaitundit du. Bost egun hauetan zehar, 428 bistari izan ditu. Horiek, %27ko igotza suposatzen du. «Masosearen kudeatzaileak lan ona eginen ari dira, eta Tolosara gerturatu diren bistariari zentuzko erantzunak ematen dituzte».

bihurtu da Topic zentroan egin beharrekia», adierazi dute Turismo salketik. Arzen hauentzat, eguraldi txarrak borarain alde egin du, eguraldi oso ona desoen, bistariak kostara esko mendiri alderako joera handiagoa baitute. Tolosan, larrietasun irakita egin zuten denek «oso ondo» lan egin zuten. «Dirudenez, eta eguraldi txarra egingatxi, idu probak jendea erakarri zuten herri-gunean».

«Egun pasa etori gara» Bada Aste Santuko ohiko bost jaiz egunak bi aste huzko oporraldia zabalitzen dituenak. Horien adibide, ato Tolosara egun pasa etori ziren Ori-Gomez eta Temprano-Sierra senildetako kideak. Bekentzi guturira, bi senar-emazte eta bost haurrak kontuan hartuta. Santandereak (Kantabria, Espainia) estresatza etori dira Tolosara. «Topic txotxongiloen nazioarteko zentroak erakarritas». «Ataizari ere egona da bertan, eta asko gustatu zitzaionez, bisitazera animatu ginen, eta horregatik etori gara gure senalabak hartuta», azaldu dute zentroko museoak atea zeharkatu aurretik.

Museoak, erakusketak, ingurumenak, gastronomia eta kulturak bultzatzen, oporraldi gendialdekoak bildu dituzte da Tolosaldeko zentroetan.

Iñigo Maiz Topic zentroko zuzendaria «oso gustura» azaldu da

ko astelhelea izan da lan gehien egin ditena. Tolosan, berriz, orokorrean «oso ondo» lan egin dute. Arzen hauentzat, eguraldi txarrak borarain alde egin du, eguraldi oso ona desoen, bistariak kostara esko mendiri alderako joera handiagoa baitute. Tolosan, larrietasun irakita egin zuten denek «oso ondo» lan egin zuten. «Dirudenez, eta eguraldi txarra egingatxi, idu probak jendea erakarri zuten herri-gunean».

«Egun pasa etori gara» Bada Aste Santuko ohiko bost jaiz egunak bi aste huzko oporraldia zabalitzen dituenak. Horien adibide, ato Tolosara egun pasa etori ziren Ori-Gomez eta Temprano-Sierra senildetako kideak. Bekentzi guturira, bi senar-emazte eta bost haurrak kontuan hartuta. Santandereak (Kantabria, Espainia) estresatza etori dira Tolosara. «Topic txotxongiloen nazioarteko zentroak erakarritas». «Ataizari ere egona da bertan, eta asko gustatu zitzaionez, bisitazera animatu ginen, eta horregatik etori gara gure senalabak hartuta», azaldu dute zentroko museoak atea zeharkatu aurretik.

Museoak, erakusketak, ingurumenak, gastronomia eta kulturak bultzatzen, oporraldi gendialdekoak bildu dituzte da Tolosaldeko zentroetan.

Iñigo Maiz Topic zentroko zuzendaria «oso gustura» azaldu da

on eta bihar bukatuko da. Lehengo egunean, gazteok Aquariuma bisitatu zuten. Bertan, arrain mota ugari erakutsiko aukera izan zuten, eta haur bakoitzak bere gustukoena aukeratu zuten, ondoren, txotxongiloa egiteko. Oligarros, arrain zahala, manta, antxoak, zaldia, trullak, nuz, norbere hagar txotxongiloa erakitzeko. Donostiako Aquariumariak batera diseinatutako arrainen talerra izan da aurretik zuzendaria «oso gustura» azaldu da

bihurtu da Topic zentroan egin beharrekia», adierazi dute Turismo salketik. Arzen hauentzat, eguraldi txarrak borarain alde egin du, eguraldi oso ona desoen, bistariak kostara esko mendiri alderako joera handiagoa baitute. Tolosan, larrietasun irakita egin zuten denek «oso ondo» lan egin zuten. «Dirudenez, eta eguraldi txarra egingatxi, idu probak jendea erakarri zuten herri-gunean».

«Egun pasa etori gara» Bada Aste Santuko ohiko bost jaiz egunak bi aste huzko oporraldia zabalitzen dituenak. Horien adibide, ato Tolosara egun pasa etori ziren Ori-Gomez eta Temprano-Sierra senildetako kideak. Bekentzi guturira, bi senar-emazte eta bost haurrak kontuan hartuta. Santandereak (Kantabria, Espainia) estresatza etori dira Tolosara. «Topic txotxongiloen nazioarteko zentroak erakarritas». «Ataizari ere egona da bertan, eta asko gustatu zitzaionez, bisitazera animatu ginen, eta horregatik etori gara gure senalabak hartuta», azaldu dute zentroko museoak atea zeharkatu aurretik.

Museoak, erakusketak, ingurumenak, gastronomia eta kulturak bultzatzen, oporraldi gendialdekoak bildu dituzte da Tolosaldeko zentroetan.

Iñigo Maiz Topic zentroko zuzendaria «oso gustura» azaldu da



rian arloan Herrialde Katalanetik etortzakoak dira gehiengo. Hauen arteak, madrildarrak kokatzen dira. Kasu berdinetsua da Gaztelak eta Leongoak. «Ez da nabermentzeko jatorria baino baidarudi Valladoldeko Intur azokan bistariak interesa agertu zutelako. Topic zentroan, berriz, 2011. urtean izan zuten eskaintza antzeko arlekin, araratuko bistarienez gauriz gaitundit du. Bost egun hauetan zehar, 428 bistari izan ditu. Horiek, %27ko igotza suposatzen du. «Masosearen kudeatzaileak lan ona eginen ari dira, eta Tolosara gerturatu diren bistariari zentuzko erantzunak ematen dituzte».

bihurtu da Topic zentroan egin beharrekia», adierazi dute Turismo salketik. Arzen hauentzat, eguraldi txarrak borarain alde egin du, eguraldi oso ona desoen, bistariak kostara esko mendiri alderako joera handiagoa baitute. Tolosan, larrietasun irakita egin zuten denek «oso ondo» lan egin zuten. «Dirudenez, eta eguraldi txarra egingatxi, idu probak jendea erakarri zuten herri-gunean».

«Egun pasa etori gara» Bada Aste Santuko ohiko bost jaiz egunak bi aste huzko oporraldia zabalitzen dituenak. Horien adibide, ato Tolosara egun pasa etori ziren Ori-Gomez eta Temprano-Sierra senildetako kideak. Bekentzi guturira, bi senar-emazte eta bost haurrak kontuan hartuta. Santandereak (Kantabria, Espainia) estresatza etori dira Tolosara. «Topic txotxongiloen nazioarteko zentroak erakarritas». «Ataizari ere egona da bertan, eta asko gustatu zitzaionez, bisitazera animatu ginen, eta horregatik etori gara gure senalabak hartuta», azaldu dute zentroko museoak atea zeharkatu aurretik.

Museoak, erakusketak, ingurumenak, gastronomia eta kulturak bultzatzen, oporraldi gendialdekoak bildu dituzte da Tolosaldeko zentroetan.

Iñigo Maiz Topic zentroko zuzendaria «oso gustura» azaldu da

on eta bihar bukatuko da. Lehengo egunean, gazteok Aquariuma bisitatu zuten. Bertan, arrain mota ugari erakutsiko aukera izan zuten, eta haur bakoitzak bere gustukoena aukeratu zuten, ondoren, txotxongiloa egiteko. Oligarros, arrain zahala, manta, antxoak, zaldia, trullak, nuz, norbere hagar txotxongiloa erakitzeko. Donostiako Aquariumariak batera diseinatutako arrainen talerra izan da aurretik zuzendaria «oso gustura» azaldu da

bihurtu da Topic zentroan egin beharrekia», adierazi dute Turismo salketik. Arzen hauentzat, eguraldi txarrak borarain alde egin du, eguraldi oso ona desoen, bistariak kostara esko mendiri alderako joera handiagoa baitute. Tolosan, larrietasun irakita egin zuten denek «oso ondo» lan egin dute. Arzen hauentzat, eguraldi txarrak borarain alde egin du, eguraldi oso ona desoen, bistariak kostara esko mendiri alderako joera handiagoa baitute. Tolosan, larrietasun irakita egin zuten denek «oso ondo» lan egin zuten. «Dirudenez, eta eguraldi txarra egingatxi, idu probak jendea erakarri zuten herri-gunean».

«Egun pasa etori gara» Bada Aste Santuko ohiko bost jaiz egunak bi aste huzko oporraldia zabalitzen dituenak. Horien adibide, ato Tolosara egun pasa etori ziren Ori-Gomez eta Temprano-Sierra senildetako kideak. Bekentzi guturira, bi senar-emazte eta bost haurrak kontuan hartuta. Santandereak (Kantabria, Espainia) estresatza etori dira Tolosara. «Topic txotxongiloen nazioarteko zentroak erakarritas». «Ataizari ere egona da bertan, eta asko gustatu zitzaionez, bisitazera animatu ginen, eta horregatik etori gara gure senalabak hartuta», azaldu dute zentroko museoak atea zeharkatu aurretik.

Museoak, erakusketak, ingurumenak, gastronomia eta kulturak bultzatzen, oporraldi gendialdekoak bildu dituzte da Tolosaldeko zentroetan.


Iñigo Maiz Topic zentroko zuzendaria «oso gustura» azaldu da

Inkesta

Nolatan animatu zara Aste Santuko oporraldian txotxongilo talerra egitera?



Leire Uranga
Tolosa, 10 Urte
«Ereban jaso genuen eskuinta, eta ahizpa eta biok animatu gara taleraren parte hartzea. Egiten dudan bigarren aldia da, eta oso ondo pasatzen dut. Lau egunetan izango da, eta gaur gidioa idazten ari gara.»



Xabi Mendigutxia
Ereñeta, 11 Urte
«Txotxongiloen taleraren izena emanen dudani lehen aldia da. Asko gustatzen zaizkit txotxongiloak eta horregatik animatu naiz. Txotxongiloa egiten duten ikasi eta ondoren antzezten egongo dute.»



Aina Telleria
Tolosa, 7 Urte
«Hiru egunetan aldiz nator talerera. Asko gustatzen zaizkit eta oso ondo pasatzen dut txotxongiloak egiten. Gaur, arrain bat egin dut, eta nik aukeratu dudana itsasko zaldia izan da. Egindakorekin antzezten kasiko dugun.»



Pablo Flores
Ereñeta, 7 Urte
«Oso gustura etortzen naiz hemen antzezten duten talerretara. Atzo -astelehenean- Donostiako Aquariumean izan ginen, eta bertan ikusi genituen arrainak egiten ari gara. Nik manta arraina aukeratu dut egiteko.»



Alain Odriozola
Tolosa, 8 Urte
«Txotxongiloak asko gustatzen zaizkit eta bigarren aldiz eman dut izena ikastarotari. Olibertigaria da eta lagurkin gustura aritzen naiz txotxongiloa egiten. Nik manta arraina aukeratu dut nire antzezlan egiteko.»



Arrain txotxongiloen talerrian eta antzeztoiak erakitzekoan 40 neska-mutil arko dira bihar arte txotxongiloekin irudimena landuz.

Tolosaldeko Topic txotxongiloen nazioarteko zentroan 40 neska-mutil txotxongilo talerretan ari dira parte hartzen; lehenaldiz txotxongiloak eta antzeztoiak erakitzekoan kasiko dute, eta ondoren norbere irudimenterik sorturiko istorioak antzezten dituzte.

Opor egunetan, txotxongiloekin jolasean

E. Maiz - I. Terradillos

H amaika aukera eskaintzen ditu eskualdeko oporraldia are eta itxeratsiago egiteko. Horietako bat da Topic txotxongiloen nazioarteko zentroa. Bata, arrain txotxongiloak egiteko talerra, eta bestea, antzeztoia erakitzeko. Donostiako Aquariumariak batera diseinatutako arrainen talerra izan da aurretik zuzendaria «oso gustura» azaldu da

talerrak dute arrakastarakin: «Bi taler ditugu, eta bakoitzean 20 gazte; haur gehiago ere eman zuten izena, baina guriak sarritxo lekurik gabe geratu gara». Bi taler izan dituzte aukeran txotxongiloen zentroan. Bata, arrain txotxongiloak egiteko talerra, eta bestea, antzeztoia erakitzeko. Donostiako Aquariumariak batera diseinatutako arrainen talerra izan da aurretik zuzendaria «oso gustura» azaldu da

on eta bihar bukatuko da. Lehengo egunean, gazteok Aquariuma bisitatu zuten. Bertan, arrain mota ugari erakutsiko aukera izan zuten, eta haur bakoitzak bere gustukoena aukeratu zuten, ondoren, txotxongiloa egiteko. Oligarros, arrain zahala, manta, antxoak, zaldia, trullak, nuz, norbere hagar txotxongiloa erakitzeko. Donostiako Aquariumariak batera diseinatutako arrainen talerra izan da aurretik zuzendaria «oso gustura» azaldu da

Antzeztoia erakitzeko. Donostiako Aquariumariak batera diseinatutako arrainen talerra izan da aurretik zuzendaria «oso gustura» azaldu da

«Egun pasa etori gara» Bada Aste Santuko ohiko bost jaiz egunak bi aste huzko oporraldia zabalitzen dituenak. Horien adibide, ato Tolosara egun pasa etori ziren Ori-Gomez eta Temprano-Sierra senildetako kideak. Bekentzi guturira, bi senar-emazte eta bost haurrak kontuan hartuta. Santandereak (Kantabria, Espainia) estresatza etori dira Tolosara. «Topic txotxongiloen nazioarteko zentroak erakarritas». «Ataizari ere egona da bertan, eta asko gustatu zitzaionez, bisitazera animatu ginen, eta horregatik etori gara gure senalabak hartuta», azaldu dute zentroko museoak atea zeharkatu aurretik.

on eta bihar bukatuko da. Lehengo egunean, gazteok Aquariuma bisitatu zuten. Bertan, arrain mota ugari erakutsiko aukera izan zuten, eta haur bakoitzak bere gustukoena aukeratu zuten, ondoren, txotxongiloa egiteko. Oligarros, arrain zahala, manta, antxoak, zaldia, trullak, nuz, norbere hagar txotxongiloa erakitzeko. Donostiako Aquariumariak batera diseinatutako arrainen talerra izan da aurretik zuzendaria «oso gustura» azaldu da

Asteasuko Lanik Ingenieros SA enpresak hitzarmena sinatu du, 2014ko Munduko Futbol Txapelketako partidak jokatu diren Arena Pernambuco estadioko estalkia egiteko.

Mugimendu baten beharra eta emaitzak

Asier Imaz Asteasu

Brasilen jokatu da hurrengo Munduko Futbol Txapelketa, 2014. urtean. Asteasuko Lanik Ingenieros SA enpresaren itzala bertan egongo da, izan ere, futbol zelai baten estalkia egiteko hitzarmena lortu zuen duela bi hilabete inguru.

Jose Luis Azkue tolosarra Lanik enpresako kudeatzailea da, nahiz eta azkenaldian komertzial lanak egitea tokatu zaion, enpresan izandako barne iraultza baten ondorioz. Kapitalismoaren krisiari aurre egiteko, Tolosaldeko lantegietan «mugimendu» baten beharra ikusten du Azkuek, eta Lehiberriren lana hor egon daitekeelakoan dago.

Arena Pernambuco

Lanik enpresa metalezko eta egur xafrazko estruktura sistemen diseinuaz, fabrikazioaz eta muntaiaz arduratzen da. Gasteizko Buesa Arenaren sabai berria, Belfasteko (Irlanda) Victoria Square eraikuntzaren kupula edo Zaragozako Gargallo Museoarena horren adibide dira, besteak beste. 2012ko otsailean lortutako hitzarmenari esker, Brasilen eraikitako duten Arena Pernambuco estadioko Lanik izena ikusiko da, harmailen gaineko estalkian.

Lanik-en beherakada 2009an nabaritu zuten, baina gogorrena 2010. urtea izan zen

Bulegoak Donostian eta tailerra Asteasun dituen enpresa honetako kudeatzaileak, Jose Luis Azkuek, Brasilgo hitzarmena nola lotu zuten ongi gogoratzen du: «Kristalarekin lan egiten duen enpresa brasildar batetik deitu ziguten iazko azaroan. Egun batetik bestera, proiektu baten aurrekontua nahi zuten. Dirudienez, estruktura arduratzen zen euren bazkidea atzera bota zen azken unean, eta proiektu honen negozioaren erdian harapatu zituen erabaki honek. Korrika eta presaka bidali genien

aurrekontua, eta prezioa ongi egokitzen zela esan ziguten».

Elkarlan horri esker, kristala lantzen zuen enpresak estruktura egiten zuena, hau da, Lanik azpikontratatu zuen. Arena Pernambuco estadiokoaren eraikitzaileak, bezeroak, eta azken finean diruaz jartzen zuenak, ez zuten argi ikusten, ordea: «Estruktura arduratzen zen aurreko enpresa atzera bota zela ikusi zuen eraikitzaileak, eta ez zuten horrelakorik berriro gertatzerik nahi. Bezeroak gure berri izan nahi zuenez, hona ekarri genuen. Hemen, bulegoak, tailerra eta gure erreferentziak erakutsi genizkien», dio Jose Luis Azkuek.

Bisitaren ondoren, gauzak erabat aldatu ziren Azkueren esanetan: «Proiektua guk gidatzea nahi zuten, eta Lanik-ek erabakitzeko kristala nori jarriko zuten; ez alderantziz. Nire ustez, zer egiteko gai ginen ikusi zutenean, behar zuten konfiantza eman genien; hango jendeak ematen ez ziena».

Albiste pozgarria izan zitekeena konpromisoa ere bazen, izan ere, kristalarekin lan egiten duen enpresa brasildar horri esker sartu ziren proiektu horretan. Hauetara, eraikitzailearen erabakia ez zitzaizela asko gustatu onartzen du Azkuek, baina hitz egin ondoren, eta beste aukerarik ez zutenez, elkarlanean aurrera jarraitzea erabaki zuten, bezeroaren baldintzak jarraituz.

Gauzak horrela, eta Brasilera hainbat bidaia egin ostean, Lanik-ek otsailean sinatu zuen hitzarmena eraikitzailearekin.

Koldo Saratxaga

Tolosaldeko lantegi gehienek bezala, Lanik Ingenieros SA enpresak kapitalismoaren krisia gertatu du. Jose Luis Azkueren esanetan, «lehen lana deitu gabe etortzen zen, eta orain bila joan beharra dago». 2009an beherakada nabaritu zuten Lanik-en, baina gogorrena 2010ean etorri zen. Egoerari aurre egiteko, hausnarketa garai bat zabaldu zuten, eta hemendik hiru helbururekin irten ziren: «Lantegiak errentagarritasuna berreskuratu behar



Asteasuko Lanik Ingenieros SA enpresaren eraikina; bertan dago tailerra. A. IMAZ

zuen, galeretatik atereaz. Nazioarteko lana beste modu batean landu beharra zegoen, eta agian zailena, jendearengan aldaketa bultzatu beharra zegoen, berrikuntzekin batera».

70 langile inguru dituen lantegian aldaketa hauek bultzatzeko, bazkideek Koldo Saratxagarekin hitz egitea pentsatu zuten, eta urte batean berarekin aritu ziren lanean. Euskal enpresa munduan ospe handia duen gizona da; besteak beste, Irizariko zuzendari orokor ohia izan zen.

2012. urtearekin batera albiste onak etorri zaizkie Brasildik Lanik-eko kideei

Jose Luis Azkueren esanetan, Lanik-en aldaketa «izugarria» bultzatu zuen Koldo Saratxagak: «Besteak beste, kaleratzerik ez egotea eskatzen zuten, nahiz eta lanik ez eduki; langileei informazio askoz gehiago ematea, erabakietan parte hartzeko; estruktura erabat aldatzea, zuzendari, nagusi eta abarren gainetik lan taldean antolatzea, eta merkatu berriak bilatzeko komertzial lana egiten duen jende gehiago jaretzea».


Mahaiaren inguruan eseri, eta azken puntu honi heltzeko, munda hiru zatitan banatu zuten Lanik-en. Ordura arte kudeatzaile zen Jose Luis Azkueri, Hego Ameriketako zatia tokatu zitzaion, komertzial lanarekin batera. Iaz, atez ate ibili zen han eta hemen, baina emaitzak ez ziren nahi bezalakoak izan. Urtea hastearrekin batera, aldiz, Brasildik hitzarmen moduan albiste hobeak etorri zaizkie Lanik Ingenieros SAKO kideei.

Lehiberri

«Lana ongi egiten duzue, beraz, zer falta zaizue?», galdetzen omen zuen Koldo Saratxagak. Horren erantzuna eskualdeko lantegi



Brasilen egingo den Arena Pernambucano estadiokoaren planoak. HITZA



Lanik enpresak harmailetak estalkiareneko estruktura egingo du. HITZA

guztieki argi eduki beharko lukezela uste du Jose Luis Azkuek. Merkatu berriak, «orain artekoak amaitu edo amaitzear baitaude», nazioartean bilatzea beharrezkoa dela dio Lanik-eko kudeatzaileak: «Jendea bultzada bat eman behar zaio, bukatu baita orain arte ezagutu duguna. Esnatu egin beharra dago, bestela, hau pikutara doa».

Bultzada emateko eta jendea «berotzeko» Tolosaldeko Lehiberriaren eta Berrikuntzarako Foroaren, Lehiberriren, izena agertzen da, lan horretarako egozkoa izan daitekeelakoan. Jose

Luis Azkueren iritziz, «eskualdeko enpresak elkarlanean lotu behar dira; elkartu eta katalogo bat sortuz merkatu berrien bila joateko. Eskualdean bilatzea beharrezkoa da, euren makinekin, lan egiten dakitenak. Hori saldu behar da, baina katalogo batekin eta elkarlanean. Lehengoarekin bada, kigu ez daukagula irtenbiderik, sistemak huts egin baitu. Sistema aldatu behar zela esaten zuten, eta zer aldatu da, ezer ere ez. Nik uste dut bai sindikatu, bai enpresari eta denak eronka berdinarekin aurrean gaudela: hau erabat aldatu behar da».

Teknologia barnetegia eta ekintzailetasun tailerrak, prest

Lehiberrik hainbat jardura antolatzen ditu urte guztian zehar, hil honetan barnetegia ere izango dute

Rebeka Calvo Tolosa

Lehiberrik urtean zehar ekitaldi ugari antolatzen ditu Tolosaldeko enpresa sarearen lehiakortasuna hobetu asmoz. Hilabete honetarako bi jardura antolatu ditu: teknologia barnetegia eta ekintzailetasuna bultzatzeko bi tailer.

Teknologia barnetegia hilaren 25 eta 26an izango da Bidegoiango Iriarte Jauregia hotelean. SPRI Eusko Jaurlaritzako eraldaketa lehiakorrek sozietatearekin elkarlanean antolatu du eta parte hartzeko eskualdeko enpresek izango dute lehentasuna.

Lehiberrik esandakoaren arabera, barnetegia enpresa txiki eta ertainteko kudeatzaileei edo zuzendaritzako kideei zuzenduta dago. Gehienez 12 pertsonako taldeak osatuko dituzte, eta apirilaren 25ean, 15:30ean, hasiko dira. Barnetegia hurrengo egunean 14:00etan, amaituko da.

Izena emateko edota informazio gehiago eskuratzeko Tolosaldea Garatzeneko Enpresa sailarekin jarri behar da harremanetan enpresa@tolosaldea.net helbidean edo 943 65 45 01 telefono zenbakira deituta.



Lehiberrik antolatutako jardunaldietako bat. HITZA

Negoio berriak sustatzeko

Bestetik, Lehiberrik eta Tolosaldea Garatzenek ekintzailetasuna sustatzeko bi tailer antolatu dituzte. Bi tailerrak Entropia aholkularitza etxeko Manu Egañak eskainiko ditu, eta 09:00etatik 13:00etara izango dira Tolosaldea Garatzenen Tolosako egoitzan (San Esteban auzoa, 20).

Lehenengoa apirilaren 23an eta 24an izango da eta *Ni ekintzaile Tolosaldean? Zergatik ez?* izena du.

Lehen tailer honen helburu orokorra «ekintzailetasun izpiritu sustatzea» dela nabarmendu dute antolatzaileek, «bai langabeteuen artean eta baita autoenpleguaren bidez etorkizuna planteatu ez duten gazteen artean ere».

Horiek horrela, parte hartzaileek beren gaitasunen inguruan hitz egingo dute tailerlean eta indar horiek negozio ideia batetara bideratuko dituzte.

Bigarren tailerra apirilaren 26an eta 27an izango da *Idea bat daukat* izenpean. Helburu nagusia parte hartzaile eta ekintzaileei sormen espazio bat erraztea da eta, era berean, Tolosaldean ekintzailetasunari buruzko hausnarketak bat egin eta negozio ideia berriak sortzea.

Tailerretan parte hartzeko edota informazio gehiago eskuratzeko Tolosaldea Garatzeneko Autoenplegu sailarekin hitz egin behar da; zubeldia@tolosaldea.net helbidera idatzita edo 943 65 45 01 telefono zenbakira deituta.

Irudia ◉ Tolosa



‘MARTIN TXIKI’ GAZTA SARITU DUTE

Tolosako Pedro Zuzuarregiren *Martin Txiki* gaztari eskuratu zuen atzo, Idiazabal Jatorri Izendapeneko Batzorde Arautzaileak Ordiziako Artzain Egunean banatutako sarietako bat. Zuzuarregi ez zen ekitaldira joan eta bere emazteak jaso zuen saria Koldo Lizarralde Diputazioako ordezkariaren esku-

tik (irudian). Ez da tolosarraren sari bakarra, dena den, azken Munduko Gazta Lehiaketan, Ingalaterran egindakoan, zilarrezko saria eman zioten. Azken bost urteetan aurkeztu da lehiaketara, eta beti itzuli da sariren batekin. Zuzuarregi 1999. urtean hasi zen gazta egiten. INAKI GURRUTXAGA-GOIERRIKOHITZA

Nafarroaren Eguna joateko autobusa antolatu du Galtzaundik

Jai eguna joan nahi dutenek euskara taldearen Tolosako egoitzan eman behar dute izena

R.C. Tolosa

Galtzaundi euskara taldeak, urtero bezala, Nafarroaren Eguna joateko autobusa antolatu du. Baigorri izango da jai eguna hilaren 29an. Izena emateko Gal-

tzaundiren Tolosako egoitzara, (Nafarroa etorbidea, 6) joan behar da, eta bazkide direnek 10 euro ordaindu behar dute, eta ez direnek, 12 euro. Autobusa 08:30ean aterako da zezen plazatik, eta 19:00etan itzuliko da herrira.

Baigorriko jai 08:00etan hasiko da herriko ikastolak eskainiko duen askariarekin. Ondoren, 11:00etan, kabalkada egingo dute eta bazkaria 14:00etan izango da, ikastolan. Arratsaldean ekitaldi ugari izango dira herriko plazan batetik, eta Xokoa, bestetik.

Nieve Euskaltel-Euskadiko buru, Gaztela eta Leon proban

R. C. Leitza

Leitzako Mikel Nieve txirrindularia izango da Euskaltel-Euskadi taldearen liderra gaur hasiko den Gaztela eta Leon proban. Etapa Salamancan (Gaztela eta Leon, Espainia) hasi eta bukatuko da, eta txirrindulariek 159,2 kilometro egin beharko dituzte.

Leitzako txirrindulariak, Giroko etaparik menditsuena, hau da, 229 kilometroko Conegliano-Gardeccia val di Fassa, irabazi zuen.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



13°
9°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	11°
HOTZENA	9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta/Aldea: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leizaldekoko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialdea, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

- **Tolosa.** Tolosa Kantariko en-tsegua gaur, 20:00etan, kultur etxean.
- **Alegia.** Bihar bukatuko da gi-zarte zerbitzuetako ikastaroan izena emateko epea. Doako ikastaroa da, eta bertan menpekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzarako trebakuntza landuko dute. Eskolak hilaren 16an hasi eta maiatzaren 11n bukatuko dira, 10:00etatik 12:00etara, 40 ordu guztira. Izena emateko 943 65 47 68 telefonora deitu behar da.
- **Tolosaldea.** Eskualdeko Herri mugimenduak larunbatean, Bilbon, 17:30ean, Parot doktrinaren aurka egingo den manifestaziora joateko deia egin du. Gernikako Akordiaoren sinatzaileek antolatuta dute mobilizazioa eta eskualdean hainbat autobus antolatuta dituzte herri-tarrek. Tolosan 15:30ean ater-

ko da autobusa Santa Klaratik; Anoetan Itzuli tabernan eman daiteke izena; Alegialdean ere ohiko tokietan egin daiteke; eta Berastegi, Berrobi eta Elduain-go bizilagunek udaletxeetan eman dezakete izena eta baita Berastegiko Urepele elkartean ere. Azken hiru herri hauetan hurrek eta langabetuek ez dute autobusa ordaindu beharko.

■ **Leitza.** Cederna Garalur elkar-teak bi ikastaro antolatuta ditu enpresa txikiei zein ertainei, dendei, langile autonomoiei eta turismo-enpresei begira. Lehena gaur bertan izango da, eta bertan ziurtagiri digitalari buruzko argibideak emango dituzte 10:00etatik 12:00etara, udal liburutegian. Parte hartzeko 948 56 70 10 telefono zenbakira deitu behar da edo sakana.admon@cederna.es helbidera idatzi. Datorren aste-artean eta ostegunean zerga

kudeaketari buruzko ikastaroak eskainiko dituzte udal liburutegian, 09:00etatik 13:00etara. Izena emateko telefono zenbaki berera deitu behar da, edo hel-bide berera idatzi.

■ **Tolosa.** Galtzaundiko euskara taldeak, urtero legez Baigorri-ningo den Nafarroaren Egune-rra joateko autobusa antolatuta du. Jai eguna hilaren 29an izan-go da, eta autobusa 08:30ean aterako da zezen plazatik. Izena Galtzaundiko egoitzan (Nafar-roa etorbidea, 6. zenbakia) eman behar da. Bazkide diren pertsonak 10 euro ordaindu be-har dute, eta ez direnek, aldiz, 12 euro.

■ **Tolosa.** Talde errepublikarrak errepublika ormentzeko jardue-rak egingo ditu hilaren 14an, tar-tean bazkaria, Fronton jatetxe-an. Joan nahi dutenek 23 euro sartu behar dituzte 2101 0067 26 0013003603 kontu zenbakian izena eta abizena adierazita.

IPUIN KONTAKETA

■ **Ibarra.** *Munduan etzun nuen* ipuin kontaketa, gaur, 17:00etan, Benito Izagirre kultur etxean. Jakin eta Jolas taldeak eskainiko du saioa.

ZINEMA

■ **Berastegi.** *Garfield 2* filma-euskaraz, gaur, 16:00etan, aparkaleku azpiko lokalean.

TXOTXONGILOAK

■ **Tolosa.** *Bete dezagun txo-txongiloz itsasoa!* tailerra gaur eta bihar Topic zentroan. Ikas-tarora asteartean hasi zen. 10 eta 13 urte bitarteko, biak barne, gazteei zuzendutako tailerra da, eta 09:00etatik 13:30era ariko dira lanean. Haurrek hamaike-tako etxetik eraman behar dute, eta ordu erdiko atsedendaldian izango dute jateko aukera. 943

65 04 14 telefono zenbakira dei-tuta eman daiteke izena.

MENDIA

■ **Tolosa.** Alpino Uzturre elkar-teak mendi irteera antolatuta du iganderako. Txangoa Beintzan abiatuko dute, eta Donamaria-raino joango dira. Zoratxipi eta Txaruta mendiak igoko dituzte 7 orduko ibilaldian. Autobusa San Frantzisko pasealekutik aterako da, 07:30ean. Parte hartu nahi dutenek, bazkideak badira 11 euro ordaindu beharko dute, eta ez badira 13 euro. Izena emate-ko 943 65 27 89 telefono zen-bakira deitu behar da, edo alpinouzturre@hotmail.com helbidera idatzi.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** AurrezAurre erakus-keta ikusi daiteke Aranburu jauregian, larunbata bitarte, hilak 14.

Agurrak

urtebetetzeak ezkontzak jaunartzeak...
urrezko ezteiak jaioberriak

agurrak

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



Bertako informazioari, bertako produktuak

Egin HITZAren harpidedun
apirilaren 3tik ekainaren 1era,
eta jaso

Ekain sagardoa
6 botilako kaxa bana



Harpidedun egiten diren guztien artean



Harremanetarako:
902-82 02 01 • harpidetza@hitza.info